

Berakah



Eskola kalea 2, 01001 Vitoria-Gasteiz

945 980 001 y 945 255 567

unidadpastoral@berakah.es

www.berakah.es

Berakah, zailtasunak dituzten eta baliabide ekonomikorik ez duten pertsoneri eta senideei harrera eta laguntza emateko programa bat da, haien premia oinarrizkoenak eta berehalakoenak konpontzera bideratua. 2006an jaio zen Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoaren Patoral Barrutiaren ekimenez (Santa Maria, San Bizente, San Miguel eta San Pedro). Berakah-k boluntariotzaren lanaren bidez baino ez ditu egiten bere jarduerak. Gaur egun, 250 pertsonen baino gehiagok ematen diote beren denbora proiektu honi, baita haien ahalegina eta ekarpen ekonomikoa ere zenbait kasutan, modu desinteresatuan eta San Bizenteko Karitateko Alabekin lankidetzan.

Helburua da erabiltzaileei berriz gizarteratzen laguntzea, oinarrizko arazoak konpondu ondoren, normaltasunez gizarteratu daitezzen edo lanean diharduten erakundeen laguntza-sarean arreta jaso dezaten. Hainbat jarduera eta programa garatzen dituzte: entzute aktiboa eta errukiorra, oinarrizko elikadura, lehe-aholkularitza, arreta psikologikoa, prestakuntzari eta autoenpleguari buruzko aholkularitza, mirko-kredituak ematea, etxebizitza-gaietako bitartekaritza, boluntarioen prestakuntza, kaleko taldeak, familia-harrera, aisialdiko taldeak eta eskola-laguntza, gaztelania-eskolak, arlope-biltegia eta abar. Baztertuta dauden pertsonen ahalik eta autonomia-maila handiena eta bizi-kalitate maila onena lortzera bideratuta daude horiek guztiak.

Despentsa solidarioa

Despentsa Solidarioaren proiektua Vital Fundazioaren eta Berakah-ren artean sinatutako akordioetako bat da. Jarduera doa kolektibo kaltetuenean gizarte bazterketaren prebentziora bideratua, berehalako erantzuna lortzen ez duten pertsonen laguntza emanez; izan ere, bere oinarrizko beharriak estaltzeko nahiko diru-sarrerarik ez duten familiei irtenbideak ematea da lankidetzaren helburua.

Irabazi asmorik gabeko saltokia da, janaria eta higiene produktuak eskaintzen dituen eta San Bizente parrokiaren atzeko aldean kokatuta dagoena. Tokia duela gutxi berriro dute eta orain hobeto prestatuta dago eta zerbitzu hobea eskaintzen du.

Produktuak merkatuko prezioan ordaintzen dituzten herritarren erosketa solidario horren bitartez, familia askok janaria eta premia biziko artikuluak prezio baxuagoan eros ditzatela ahalbidetzen da, euren diru-sarreraren arabera. Prezioaren % 100 ordaintzen dutenek uzten duten irabazi-marjina beharriak handiena duten familiei eskaintzen zaizkien deskontuetara bideratzen da.

Instalazioak eraberritu ostean, interesa duten pertsona eta erakunde guztiei Eskola kalean (San Bizente parrokiaren atzeko aldean) eurekin elkarlanean aritzeko aukera eskaintzen jarraitzen du Despentsak, asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

Despentsa Solidarioaren Makina

Erakunde biek pobrezia eta desberdintasunen aurkako borrokarekin duten konpromisoaren ildotik datorren ekimen berria. Lankidetzaren berritzaile hori makina banatzaile bat instalatzean datza. Makina horrek, euro 1etik hasita, behar duten pertsonentzat, janaria dohaintzan ematea ahalbidetzen du, dohaintzan eman den janariaren irudia daraman kutxatxo baten truke.

Vitoria-Gasteizko El Boulevard merkataritza gunearen barruko aldean dago kokatuta eta laguntzeko interesa duten pertsonen dohaintza egiteko aukera anitz eskaintzen dizkie, euro batetik hasita hamar euroraino, aukeratzen dutenaren arabera, produktu bakarra izan daiteke edo janari sorta bat. Lortzen diren dohaintza guzti-guztiak Despentsa Solidarioa hornitzera bideratuko dira.

Informazio gehiago www.berakah.es webgunean.

Belen Etxea

Vital Fundazioak bultzatu eta finantzatzen duen eta Berakah-k kudeatzen duen Belen Etxean prekarietate egoeran dauden eta etxebizitza bat ordaindu ezin duten familiei eta adingabeak zaindu behar dituzten emakumeei ematen zaie lekua.

Egoitza partekatu bat da, aldi baterako, erabiltzaileen gizarteratze eta laneratzeko bidean beste urrats bat izan nahi duena. Instalazio hauetan dauden bitartean, gizarteratze eta laneratzeko-prozesuetan lagunduko dieten ohiturak indartzeko ahalegina egiten da, eta gizarte eta heziketa-arloko baliabideak eskaintzen zaizkie.

Familia bakoitzak Berakah elkarteko boluntarioen taldeko arduradun-tutore bat dauka, prestakuntza eta baliabide ekonomikoetarako sarbidea, adingabeen zaintza eta lana eta etxebizitza bilatzeko prozesua errazten diena. Horrez gain, hurrek eskola-laguntza jasotzen dute, eta, aldi berean, amak hainbat ikastaro edo hitzalditan parte hartu edo txango kulturalen bat egiten dute. Halaber, emakume zien gizonei hizkuntza ikasteko laguntza eta enplegarritasun-ibilbidetarako sarbidea eskaintzen zaie.

Vital Fundazioaren lankidetzak

Berakah programak Vital kuxaren Gizarte Ekintzaren laguntza ekonomiko garrantzitsua izan du historikoki. 2009az geroztik, erakundeak Berakah-k garatutako proiektu multzoa finantzatzen lagundu zuen, gure lurraldeko kolektibo behartsuenen artean bazterkeria prebenitzeko: Betania zentroa, laguntza behar duen jende askorentzako erreferentzia gunea; Ain Karem etxea, amentzako eta seme-alabentzako egoitza; Belen etxea, familientzako egoitza; edo Tabgha Despenssa Solidarioa, besteak beste.

Vital Fundazioak Berakah-rekin duen urteko hitzarmenari eusten dio, programa horiek guztiak babesteko, eta noizean behin beste ekarpen batzuk egiten ditu unean uneko arazoak konpontzeko, hala nola Covid19ak sortutako krisiaren ondoren sortutakoak, betiere premia handiena duten pertsonei laguntzeko.

Irudien galeria



Zabaldu



Zabaldu